

ONGI ETORRI

IRASTORZA JABIER APEZPIKU JAUNARI:

Apezkain jauna: Gaur Donostiyak
darabiltzkiyen poza guziyak
zuriak dira.

Lore-artetik usai onena
bildu nai nuke sorta batian,
t'abora noski datozenian
nere biyotza t'onen kemena,
aldedan eder t'egokiya
eman nai dizut zorionpena;
t'artara ekatzu zure baimena.

Donostiarra naiz t'elbarriyena,
baña biyotza bai dalza: t bero,
egosi-egosi egin da gero
ezin esan dan poztasunian;
t'emenche daukat zure aurrian.

«Zer da ba, maite, galdetau diyot
zer genezake-eskani biyok
Jabier Jaunaren jai aundirako?
badakizu ba, lanbide pl-anho
da torkigu la; t'ontan bagera
ezin diteke urik atera,
naiz jardun goitik naiz dala azpiyan
legos dagoen urategiyan.»

Baña biyotza puzkatzen dabil
barrunbez diran ate-maratil,
irten nai du-ta; nik ezin eutzi,
t'aiseğiñezko iskanbilletan,
zugana dator gaurko jayetan
mami-mamitsu t'urduri guzi.

Antatu ditu bere loriak
barutzan zeuden ederrenetik;
aingeru batek zeru-goyetik

ekarri dizka landaretiak:
 erreka baten irristadean
 ur garbiyenak ermetu ditu,
 gañetik herriz intzak berritu
 illargiyaren ispillupean.
 jainkuak nai du! Berak egin da!
 nere biyotzak ezer ezin da,
 gaur degulako jabierren jaya
 erantsi diyo bere-usaya
 emen dakardan lore-sortari,
 zure ta gure atsengingarri.

Donostiyako bazter maitian
 idiki dira zeruka atiak,
 eta jaungoiko Jesus maitiak
 ezarri dizu bular gañian
 gurutxe zalla, gurutze ori
 t'apaiz-nagusi egin zedorri:
 mastuna-re biotz-erdian
 or daramazu eragukera:
 Elizarekin ezkondu zera
 urratzen eztan maitasunian:
 gaurtik nagusi, gaurtik artzaya,
 apostoluen aide t'anaya:
 gaurtik Elizan zu e ikastola
 t'artaldiyaren buru t'ajola:
 igortzi zaitu gure Jainkuak
 Emalle zaigun Espirituak,
 Jaunaren orde onuntz egorri,
 t'Eliz guziyak pozik zedorri
 esaten dizu: ongi etorri!

Gertaldi eder! Ezta zeruan
 ederragorik agiyan gertu:
 aingerubak-e eztira edertu
 zure eskubide pleitsu t'osuan,
 t'auspetuz daude, makur agiyan,
 beren eche ta loretegiyan,
 irantsi nairik lore ugari
 entzngarri dan zure jayari;

t'ezta mirari: Jainkuak zaitu
 esku betekaz ortara gaitu,
 nagusi egin ziñez t'egijaz
 laga dezaken almen guzizaz.

Euskal-erriko lurtarrok berriz
 egutez dauden ibar ta mendiz,
 urrutiratuz illundi-zama,
 poz eder batek arin garama
 eguzkiyaren sortaldez gora
 Jaungoikuaren eche ondora:
 t'Euskal-erriyak emango dizka
 dagozkizoken chanda t'aldizka
 Jainko berari gozo t'ederrak
 mesede onen ordain-eskerrak.

Ta jai abetan eztabil noski
 zoramen.ase gure Donosti?.....
 Ez izan ontaz bildur ta keska:
 biyotzak duen eskein-onezka,
 Donostiyan-e urre, zillarrez
 t'intsetsuaren usai ta garrez,
 der onena bilduba dago
 gerota gartsu, ainbat gorago
 donostiar guzin baimenarekin
 Jaunarengana irichi dedin.

Donosti sarrak gorde-ta dauka
 jaso zinduan lore-seaska:
 zuk dakizkizun arri-kosketan
 idatziko du zure izena,
 azaldu dedin ospatsubena
 San Bizenteko chirristaretan
 an jayo ziñan an batayatu:
 an Donostiyak aidetzen gaitu
 zure anai ta bere semiak
 simurtu zaigun ama maitiak.....

Auspez jarri-ta icharon gaude
 Donostiyaikin gesanok aide,
 t'erri biztanle, t'oste geyena.....
 eman zaguzu zure lenengo bedeinkapena?

R. INZAGARAY